

XXVIII. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

EREINTZA ELKARTEKO ESKULANGINTZA SAILA

SARRERA

Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren XXVIII. edizioa apirilaren 29tik, larunbata, maiatzaren 1era, astelehena, ospatu da aurten ere Errenterian. Eta iaz bezala, Udal Merkatu Zaharreko "Jose Luis Caso" aretoa izan du kokagune, haren ondoan karpa bat jarri delarik, elikagaiak lantzen dituzten artisauentzat.

Euskal Herriko zaharrena den azoka hau oso garrantzitsua bihurtu da sektore ekonomiko honentzat. Izan ere horrelako guneak garapen profesionalerako beharrezkoak diren bezero potentzialak erakartzeko egokienak dira eta egitura ekonomikoan bere lekua betetzen den heinean, eskulangintzak herriaren ohiturak eta historiaren parte bat bizirik irautea lortzen du.

Honen guztiaren berri ematera gatozkizue "OARSO" aldizkariaren urteroko topagune hau aprobetxatuz.

GAI BEREZIA: EUSKAL BALEZALEAK

Errenteriako azokaren ezaugarrietako bat urtero gai edo materiale bati arduraren berezia eskeintzeko egiten den ahalegina da. Horrela, XXVIII. edizio honetan, "Euskal balezaleak" eta garai bateko bale-arrantzaren inguruan sortutako zenbait eskulangintza, hautatu da gai berezi bezala.

Arlo honetan "ALBAOLA" elkartearen laguntza eta partaidetza estimagarria izan dugu, gure arbasoek baleak arpoiaz jotzeko erabiltzen zuten "Butus" zeritzan txalupa motaren inguruan, istinka lanak, arraunak, harrizko aingurak, belak, garai hartako jantzi eta oinetakoak, arpoiak, eltzeak, otarrak eta upelak nola egiten ziren ikusi ahal izateko.



Foto: POLY

BESTE ZENBAIT BERRITASUN

Gai bereziaren inguruko eskulangintzetik aparte, aurten ikusi ahal izan diren beste zenbait berritasun ere aipatu nahi genituzke. Izan ere edizio bakoitzean lagintza deigarrienak edo ikusgarrienak ekartzen saiatzen gara, bertan egokitutako lan-tailerren bidez. Esate baterako:

- Victor Goikoetxea pintore-artisauak, Parisko Dekorazio Pinturako Goi Institutuan diplomatuak, Frantzian tradizio handia duen "Trompe l'oeil" teknika erakutsi digu. Teknika hau dekorazio-mural handietarako erabiltzen da eta ilusio bat sortzea da bere helburua: marrazki bat besterik ez den zerbaitetik gauza fisikoaren existentziari buruzko ilusioa sortzea hain zuzen ere, begiari iruzur eginez.



- Kanaberaz puztutako beiraren teknika "Argia Badago" taldeak aurkeztu digu. Igor Obeso buru zuela, labe batetik ateratako beira urtuarekin beirazko elementu ezberdin sortzen ikusteko aukera eman digu.
- Alicia Osés andreak, ipuinak idazteaz gain, horiek ilustratu eta margotu ere egiten ditu. Irudi orriak inprimatu ondoren eskuz azaleztatatu, eta ondorioz amaierako produktua oso artistikoa eta bitxia gertatzen da.
- Xabier Obeso eta Karmele Lacombe errenteriarrek, paper artistikoaren egintza eta kobrezko xafletan egindako grabaketa egiteaz gain, bi langintza hauek lotu dituzte xafletako grabaketa tinta eta tinkagailu edo prentsa baten bidez paper horretan estanpatuz.
- J. Gonzalez artisauak, galduzko argizari galdaketa artistikoa lantzen du, brontzeko erreproduzio zehatza beharrezkoa den kasuetan. Teknika hori erabiliz, hala miniaturak nola monumentoak landu daitezke zehaztasun maila handia lortuz.
- A+B proiektua. Ana Yabar eta Blanka Gomez de Segura artisauak bere proiektu berria aurkeztu digute. Bide berriak urratzeko beharrak eraginda, hainbat arlotako artisauen arteko elkarlanaren eredia izan litekeena. Proposamen honen bidez muinaren bila joan nahi izan dute, bakoitzaren nortasunari uko egin gabe, diseinu bateratu batean beren oinarriko konzeptuak batuz.



Foto: POLY

ZABALTZE UNEA

Azokaren irekiera ofiziala apirilaren 29an, larunbata, eguadiako 12etan izan zen. Joxe M^o Izagirre Ereintzako lehendakariaren ongi etorriaren ondoren, Luis Mari Oiarbide diputatu jaunak, Foru Aldundiko ordezkari gisa, hartu zuen hitza, eta bere ondoren, azokari hasiera emanez, Errenteriako Alkateak, Juan Carlos Merino jaunak. Bertan izan ziren ere, bere babesaren ematen digun Kutxako ordezkariak, Errenteriako Udaleko zinegotziak, komunikabideetako kideak eta Azokarekin eta kulturarekin lotura duten lagunak, hainbat urtetan Ereintzarekin lankidetzan aritutakoak.

Irekiera ofizialaren ondoren, agintari eta gonbidatuek, artisauen lanak ikusteko eta bide batez haiekin solasean aritzeko aukera izan zuten.

ARTISAU PARTE-HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFIA JATORRIAK

Azokara etorri behar duten artisauen zerrenda osatzerakoan, urtero aurkitzen gara eskari guztiak ezin onarturik, guneak berak mugatzen baitigu artisauen parte-hartzea. Zentzu honetan, Merkatu Zaharraren eraikin osoa bermoldaketa proiektu baten atarian dagoenez, Udalaren aldetik Azokaren beharrak kontutan hartuak izango direla pentsatu nahi dugu. Izan ere azkenean urteetan artisauen kopurua murriztu behar izan dugu leku faltagatik.

Beraz ohiko irizpideak jarraituz, hau da, kalitatea, aniztasuna, langintza berrien aurkezpena eta nolabaiteko geografia ordezkariak, aukeraketa prozedura baten ondoren osatu zen parte hartu duten 50 artisauen zerrenda, eta horietatik 13 izan dira lehen aldiz Errenteriako Azokara etorritakoak, hau da, parte-hartzaile guztien %30a. Hona hemen langintza eta geografia jatorriaren araberrako sailkapena.

Gai berezia: **Euskal Balezaleak:** Antzinako ontzien berregintza (1); antzinako marinel jantziak (1); Forja lanak (1); Oinetakoak (1); Buztingintza (1); Gaztainondoko otarregintza (1); Upelgintza (1).

Zura: Altzarigintza eta taila (2); Jostailuak (1); Tornu-lanak (2); Gazta egiteko tresneria (1); Ezpel artisautza (1).

Burni eta metalak: Galda artistikoa brontzean (1); Grabaketa (1); Bitxigintza (3); Esmaltegintza (1).

Buztina: Zeramika (2).

Papera: Papergintza eta Paperaren eskulangintza (2); Mache paperaren lanak (1); Kaligrafia (1).

Beira: Kainaberaz puztutako beira (1); Beira tailatua (1); Beira termogaldatua (1); Beirateak eta tyffanys (1).

Oialkiak: Ehungintza (1); Euskal jantziak (1); Artileak eta tindaketa (1); Ehun serigrafia (1).

Larrua: Abarkak (1); Pilotak eta eskularruak (1); Larrugintza (2).

Bestelakoak: Euskal musika-tresnak(1); Zume otarregintza (1); Apaintzeko margoketa eta Trompe l'oeil (1); Lore idortuak (1); Panpinak (1); Maketak (1); Ipuinak (1); Xaboi naturalak (1).

Elikadura: Taloak (1); Edari biziak (1); Konfiteritza (1).

Geografia jatorriaren arabera berriz, Gipuzkoatik (28), Arabatik (2), Bizkaitik (6), Nafarroatik (10), Ipar Euskal Herritik (3) etorri dira.

HOBEKIEN DEKORATUTAKO ERAKUSTOKIARENTZAKO SARIA

Hamabost urte betetzen duen sari honek, nahiko buruauste eman ohi dio Gipuzkoako Bazkondeak izendatutako epaimahaiari. Izan ere, urtetik urtera erakustokien apainketa kalitate eta originaltasunean gora dioa eta zaila egiten da bat bakarra aukeratu behar izatea. Horregatik, artisauen berauen aholkua jarraituz, aurten bi sari eman dira.



Foto: POLY

Lehen saria, 300 euro eta diploma, epaimahaikoen ustetan "bere lehengaietan edo landutako produktuetan oinarrituta erakustokia hobekien dekoratu" duena izan delako, Donostiatik etorritako Marisa Egaña anderearentzat izan da, "mache" paperean egindako lan koloretsuei esker. Bigarren saria, 200 eurekin, Gabiriako "Amalur" egur tailerrarentzat izan da.

WEB-ORRIA

Gogorarazi nahi dugu web-orria eguneratuta dugula. Hona hemen www.ereintza.com orrian sartuta aurki daitezkeenak:

Parte-hartzaileak: parte-hartzaileen zerrenda osoa, beren izena, harremanetarako telefono-zenbakia eta garatzen duen artisautzaren argazkia.

Kokapena: azoka non kokatua dagoen eta bertara nola iritsi daitekeen.

Erakusgunea: azokaren barruan stand bakoitzak duen kokapena.

Babesleak: babesleen zerrenda, beren web-orrietarako estekak barne.

Posta: azokari buruzko iradokizunak edo iruzkinak bidaltzeko.

Albisteak: esteka honetan, azokaren inguruan sortzen diren azken berriak gaineratzen dira. Halaber, prentsa txostenak eta komunikabideei eskainitako informazioak bertan agertzen dira.

BUKAERA GISA

Ez genuke artikulu hau bukatu nahi eskulangintzaren egoerari buruz erreflexio txiki bat egin gabe. Iaz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako **Euskal Autonomia Erkidegoko Artisan Industrien Azterketaren** aurkezpena egin zen Azokaren esparru barruan.

Izan ere Azoka bera eta eskulangintza, orohar, etorkizuneko erronka berrietara egokitzeko asmoz egin zen, egin ere.

Azterketa horek, artisauren egoeraren adierazgarri izan nahi zuen. Bere lehen atalak artisauren lantergien egungo egoeraren hainbat arlo jasotzen zituen eta bigarren atalak berriz, akzio plan baterako oinarriak jartzen zituen, sektoreraren ahultasunak, mehatxuak eta indarrak zeintzuk ziren kontuan harturik.

Egun, artisautzaren konpetentziak Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundian egoten jarraitzen dute, legedi eta esparru ezberdinetan barreiatuta. Horregatik, etorkizunari begira egiten ziren proposamenen artean, eta lehen pauso eta baldintza bezala, Artisauren Erakunde-artekeko Foro baten beharra aipatzen zen. Foro hori, bakoitzaren konpetentzi-arloa errespatatuz, hiru Diputazioek, Eusko Jaurlaritzak eta artisauren sektorearekin zerikusia duten jende eta elkarte profesionalak osatuko lukete eta erreflexio eta akzio gune izango litzateke.

Urtea berririk gabe pasa da, eta une hauetan uste dugu, goian aipatutako Foroa, eta oro har **Euskal Autonomia Erkidegoko Artisauren Azterketaren** plana, martxan jartzea (momentuzko borondate oneko deklarazioak gaindituz), behar-beharrezkoa dela etorkizuneko eskulangintzak bizirik iraun dezan.

* * * * *

Azkenik, ospatu berri dugun XXVIII. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka aurrera eramatea ahalbidetu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisauren guztiei. Eskerrak ere, etorritako ikusleagoari, hala nola bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei ere. Eta bereziki bere laguntza eta babesa urtero ematen diguten erakundeiei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Errenteriako Udalari, Gipuzkoa-Donostia Kutzari. Bihoakie berriro guztiei gure eskerrak beroena. ■



Foto: POLY